

ZER ETA ZELAN IDATZI

GAUZA ERREZA

Askok uste dau idaztea eta batez be euskeraz idaztea gauza gaitxa dala eta edozeiñek ezin leikela, orretarako trebeak izan ezik.

Eta ori ez da orrelan. Pentsakera ori euskereari kalte aundia egiten dautson gauzea da.

Idaztea gauza erreza ta pozgarria da, jatea naiz edatea dan bestean erreza ta pozgarria. Orregaitik euskera dakian edozeiñek, euskeraz egin leiken gauzea.

IRU ALDI

Idazteko eta euskeraz idazteko be bai, iru oinkada emon bear dira. Uste izan ez arren, lenengo biak gaitxenak:

- Gaia asmatu
- Zatieta eratu
- Idatzi.

GAIA ASMATU

Lenengo esan dogu, gaia asmau.

Askok esaten dauana da au: Nik idatziko neuke, eta pozik, baiña gaiak falta jataz, ez dakit zeri buruz idatzi.

Neuk agertuko dautzut bide errez-errez bat: Izparringia irakurten dozunean, sarritan esango dozu zeure artean: Emen diñoana egi aundia da eta geiago be esan bear leuke. Ori burura jatortzunean, asmau dozu gai bat.

Urrengo baten antzeski bat, pelikula bat ikusten dozu eta zeure buruari diñotsazu: Ez dago eskubiderik, indiatar gizajoak orrelan zapaltzeko. Orra or beste gai bat: Inditarren zapalkuntza, gure erriarena, alderdien arteko alkar-zapaltzea... zapalkuntza.

Eta olakoak milla.

ZATIETAN ERATU

Urrengo, esan dogu, gaia zatieta banandu.

Gai bat burura datortzunean, idatzi baiña lenago, laburpen bat egin bear dozu: Gai orreri buruz agertu nai dozuzan gauzak idatzi.

Esaterako, egin dagigun gaia alboratuak dirala eta diñozu: A) Nortzuk dira mundian alboratuak? 1) Erri txikiak. 2) Erri txiroak. 3) Banakako gizon makalak. gaisoak, atzeratuak... 4) Gure errietan, zar batzuk, urriñeko baserrietan bizi diran batzuk, etorri-barri batzuk...

B) Eta zer egin bear da alboratuai buruz? Zer egin bear dogu euskaldunak munduan alboratuak ez izateko...

Olako zati bakoitzean zati txikiagoak be ezarri leiz.

IDATZI

Eta or daukazu gai bat eratuta, zu idazteko prest, zer bear da? Besterik ez, laburpen ori aurrean dozula, urren- gorik urrengora idaztea baiña. Orrelan idazteak egundoko poza emongo dautsu, gero zeuk idatzia erriaren onerako dala jakiteak poz barria...

Ez zaite iñoz asi idazten, lenengo zeregin biak, gaia asmatzea eta zatieta banatzea egin barik. Kaltegarri izango jatzu eta idaztea itzi egingo dozu.

ONDO IDAZTEKO

Orrez gaiñera ondo idazteko, beste gauzatxu batzuk be artu egizuz kontuan. Gauzak esateko ere be aukeratu: bioz-miñagaz idatzi ala otz-otzean, kondaira lez; artu dozun gai ori azaltzeko, irudirik onenak aukeratu eta gero bizi-bizi agertu.

Idatzi ondoren, zeuk idatzia barriro irakurri eta zuzendu egizu. Beti aurkituko dozuz okerrak edo obeto esateko erak. eta orrelan irarkolara zure lana eroan bear dauanari laguntza aundia emoten dautsazu.

Beti zuzendu zeuk idatzia.

Ori, gaiñera. lan naikoa pozgarria izaten da.

Batez be idazle barriak diranak eta urteetan aurrera dagozen idazle trebeak beti egin bear dabe ori, eta or bitartean dagozanak egitea be ondo litzake.

BIZKAIERARI LAGUNTZEN

Ez aitzu iñoz be, euskereari emon zeinskion laguntzarik onena, idaztea dala: Izkuntza idatziak indar aundia dauko irauteko, lenago baiña askoz geiago gaur-egun.

ZER'en irakurlerik geienak Bizkaierearen alde dagoz. Orduan, bizkaieraz asko eta ondo idatzi bear dogu. Ez dogu izan bear, ez lotsa eta ez bildur, gure arerio diran jokabideak, Euskaltzaindiak berak ezarten dauzan arauak eta burubideak alboratzeko. Guk bizi egin bear dogu eta gu iltzera garoazan arerioa zein dan ba-dakigu. Idatzi ba, eta bizkaieraz idatzi.

Ba-dakizu, irakurle, gure ZER onetarako idazlanak urri datozena. Eta zeuk zergaitik ez dozu idazten? Erreza da, egin zeinke.

OLAZAR' EK